

Bota Bertsoa!

Bota Bertsoa! ekimenak «pandemia aurreko zenbakietara» itzuli nahi du

9garren edizioa da aurtengoa, eta aukeratutako gaia hauxe da: 'Sartzean ondo ginen baina...'. Bakoitzak nahi duen doinu eta neurrian bota dezake bertsoa, eta betiko dinamikari jarraituz, bertsoa sagardotegietan idatzi daiteke.

URUMEA BOTA BERTSOA

Sagardotegi denboraldiarekin batera hemen dator aurtengo IX. Bota Bertsoal ekimena. Urteroko zitari eutsiz, txotx denboraldiarekin batera, Bota bertsoal bertso-paper lehiaketa txikia antolatu du Dobera Euskara Elkarteak. Aurten, «indarberrituta eta ilusio haundiz» antolatu dutela aitortu dute Doberako kideek. Aurreko urtean 115 bertso inguru jasota, marka gairiditzea izango da aurtengo helburua. «Pandemia aurreko zenbakietara itzuli nahi dugu». Horretarako, «jokoa emango duen» gaia aukeratu dute: «Sartzean ondo ginen baina...».

Parte hartu daitezke 23 sagardotegitan, baita emailaz eta Instagram bidez ere. Aurten ere Hernani, Urnieta eta Astigarragako 23 sagardotegitan izango dira idatzitako bertsoak uzteko kutxak (Lizeaga, Petri-

tegi, Astarbe, Zapiain, Ipintza, Rezola, Gurutzeta, Itxas-Buru, Olaizola, Otsua-Enea, Altxueta, Iparragirre, Elorrabi, Goiko Lastola, Larre Gain, Garin taberna, Oialume Zar, Oyarbide, Zelaia, Akarregi, Rufino, Elutxeta eta Eula). Hortaz, egin beharrekoa da bertsoa osatu norberak nahi duen doinu eta neurrian, izen-abizenak eta telefonoa jarri, eta papera kutxan sartu. Horrez gain, bertsoa emailaz aurkezteko aukera ere egongo da. Horretarako, identifikazio datuak jarri eta bidali bertsoa dobera@dobera.eus helbidera. Ohiko bi modu horiez gain, aurten Instagram bidez (@doberaelk) bidaltzeko aukera zabalduta dute. Bertara bideoak, argazkiak edota mezuak bidaltzeko.

Sari banaketa apirilean egingo da eta sari mordoia izango da. Hernaniko bertso eskolako kideek epaituko dituzte. Urtero bezala, bi lagunentzako otorduak eta sagardo kaxak ira-



Bota Bertsoal ekimeneko sariak apirilean banatuko dira.

bazteko aukera izango da, baina baita zenbait ekitaldietarako sarrerak ere.

Non eta noiz egingo den ez dago zehaztuta. Eguraldi ona eginez gero Tilosetan izango da eta euria eginez gero Atsegindegin. Apirilean izango litzateke, baina ez dago eguna jarrita.

Egitasmoari esker oso giro polita sortzen da sagardotegian. Era berean, sagardotegietan

giro euskalduna piztu nahi dute Doberak eta Hernaniko bertso eskolak, euskeraren erabilera eraginez; eta euskal kultura ere sustatu eta indartu nahi dute. Zentzu horretan, nabarmendu dute «oso balorazio positiboa» egiten dutela sagardotegiek urtero: «egitasmoari esker, oso giro polita sortzen omen da sagardotegietan», azaldu dute. 2019an, pandemia aurreko azken edizioan 130 jaso ziren, pasa

den urtean 115 eta aurten 130era iritsi nahi da.

Beraz, animatu eta parte hartu lehiaketan, sagarraren, sagardoaren eta bertsoaren kulturaz gozatzeko aukera ederra baita Doberak proposatutakoa. Gogoratu: Sartzean ondo ginen baina... Gaiak jokoa ematen du bertso umoretsuak, biziak eta zuzen bezain okerrak idazteko. Batez ere, okerrak; zuzen sartu arren. **k**

BOTA BERTSOA!

IX. bertso-paper lehiaketa txikia

Aurtengo gaia:

Sartzean ondo ginen baina...

Antolatzaileak

DOBERA
EUSKARA ELKARTEA



SARI MORDOXKA
AURTEN ERE...

2 lagunentzako
otorduak



eta gehiago!

Ekitaldietarako
sarrerak



Sagardo kaxak

